

### 1.- ZERBITZUEN ERAKUNDE ERANTZULEA:

BERUALA (Bermeoko Urigintza Barriztatzeko Alkartea)

Andra Mari, 22

Tel.: 94 617 91 73

Faxa: 94 617 91 25

E-maila: [beruala@bermeo.org](mailto:beruala@bermeo.org)

*Arduraduna:* Josu Azaola

**2.- XEDEA:** Zerbitzu honek izaera administratiboa dauka, eta derrigorrezko eraikuntzari lotuta dagozan orubeak ezagutzera emotea da, zerbitzu honen azken helburua.

**3.- PROZEDUREA:** Bermeoko Orubeen Erregistroan inskribatuko dira derrigorrezko eraikuntzari lotutako orube guztiak.

Orubeen erregistroa udaleko Idazkariaren ardurapean egongo da. Udaleko Idazkariak bere sinadurarekin onartuko dau egindako diligentsia. Diligentsia hau eta erregistro liburuan egiten diran jarleku guztiak, Udaleko Alkateak ikus-onetsi beharko dauz.

Bermeoko orubeen erregistroak, honako egoerak adierazoko dauz:

- a) Egoera, orubearen izena, kalea, enparantza, zenbakia eta orubeak aurretiaz eukitako zenbakiak.
- b) Hedadura eta mugak.
- c) Orubearen izaera, helburua eta orube hobeto identifikatzeko erabili ahal diran bestelako datuak.
- d) Jabearen izen-abizen eta helbidea.
- e) Kargak, grabamenak, Jabetza erregistroan inskribaturiko egoera juridikoak eta titularren egoera pertsonalak.
- f) Erregistroan inskribaturiko datuen erreferentzia.
- g) Eraikitze epea eta luzapenak.
- h) Erregistro fiskaleko eraikuntza, orubeko datuen erreferentzia eta errekaudazioari buruzko udal agiriak.
- i) Ondasun higiezinaren errendatu, errendatzaile edo okupatzailea.
- j) Orubearen eraikuntza prezioa, eta ondasun higiezinaren bestelako elementuen balorazioa.

Bermeoko orubeen erregistroak honela lan egingo dau: Erregistroa, orri eta liburuen bitartez eroango da. Posible izan ezker, erregistro hau informatizaturik egongo da.

Udaleko Idazkariak bere sinadurarekin irekiera diligentsia onartuko dau. Irekiera diligentsia eta liburuetan luzatzen diran jarlekuak Alkateak ikus-onetsiko dauz. Jarlekuak sortzen dabezan dokumentuak udalan artxibatuko dira.

Orubea inskribatzeko honako prozedura jarraitu beharko da: Orubeak Inskribatzeko, derrigorrez honako egoeratariko batetan aurkitu beharko dira:

- a) Orubean, lan eraikuntzaren ez-betetzearen deklarazioa emoten danean.
- b) Eraikuntzaren hondamendia deklaratu danean, edota ebazpen zehatz batek eraikuntzaren desegokitasuna adierazten badau, kontutan izanik planeamendu edo eraikuntza legedia.

- c) Eraikitzeke epeak urte batetan luzatu daitezke. Udalak erabagi daike luzapena 2 urtetako izatea.
- d) Eraikuntzarako epeak ez dira aldatuko, nahiz eta jabetza eskualdaketak emon epe horretan.

Udalak sortutako espedientea era honetan izapideratuko da:

1. 1.1.- Ondasun higiezinak finkatuta dagoan lekuko udalak ezagutuko dau. 1.2.- Egindako prozeduraren hasiera ematea orubeko jabeari, errendatu, maizter, erabiltzaile eta bestelako eskubideak daukezanei jakinarazoko jake. Era berean, udaleko argitarapen tabloian eta aldizkari ofizial batetan argitaratuko da. ( egon ezker Diputazio Foralari jakinaraziko jake ). 1.3.- Komunikazio eta jakinarazpenak, akordioa lortu eta 8 eguneko epean egingo dira. 1.4.- Jakinarazpen individuala eginda, 15 eguneko epea izango dau interesdunak alegazioak egin, dokumentuak eta frogak proposatu edota aurkeztu ahal izateko. Jakinarazpen pertsonala egitea ezinezko izan dan kasuetan, aurretiaz adierazitako epe hau, udaleko argitalpen tabloian edota aldizkari ofizialan argitaratzen danetik hasita, zenbatzen hasiko da. 1.5.- Erreklamazio epea amaituta, eta aurkeztutako eta onartutako frogak egin ondoren, udaleko Alkateak aurretiaz zerbitzu juridikoak emondako txosten juridiko bat dala medio, egindako proposamena Osoko Bilkuran erabagiko da.

Espedienteari hasiera emon jakonetik, gehinezko 6 hilabeteko epean erabagia emon beharko da.

2. Osoko bilkurak emoten dauan erabagia jabeari jakinaraziko jake. Bestelako interesdunak diran, errentaria, 3. interesdunak edota Diputazio Foraleko Urigintza Sailari be jakinarazpena egingo jake.

Orube baten inskribapena erregistroan egin ahal izateko, udal erabagi baten arabera egingo da. Erabagi hau betearazlea izango da.

**ORDENANTZA**